

## Obra

*Ez zen diruagatik*, novela (2014, Elkar).

"Sole, zer duzu Sole?", relato (2002, Pamiela), Accésit en el Concurso Literario de Nuevos Autores en Euskera del Ayuntamiento de Pamplona.

*Mero amor. Línea discontinua*, poesía, (Everest, 2009), Premio Premio Francisco Ynduráin de las Letras para Escritores Jóvenes, Aoiz.

*Sombras turbias en la ventana*, Premio de Poesía del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, Guipúzcoa, 1996.

*A ritmo de silencio*, Premio de Poesía del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, Guipúzcoa, 1990.

*Alambradas*, Premio de Poesía de la Diputación Foral de Guipúzcoa, 1992.

Tiene el blog Línea discontinua, [http://anajaka.blogspot.com/es/](http://anajaka.blogspot.com.es/)

Fuente texto: Biblioteca virtual Wikia.



175

**Ladrón Arana,  
Alberto**

(Pamplona, 1967)

90eko hamarkadaren amaieran hasi nintzen idazten. Irakurle amorratua nintzen, baina ez nuen gustuko garai hartako euskal literatura. Idazle batzuek baserriaren nostalgian jarraitzen zuten XIX. mendetik. *Modernoak* arraroak eta ulergaitzak zitzaizkidan. Aspergarria zitzaidan estilo astun, sasi-akademiko hura. Argumentu indartsuak, harrigarriak, misteriozkoak nahi nituen, baina ezinezkoa zen. Nik Stephen Kingen fantasiak maite nituen, Tolkienen epika, Lovecraften beldur kosmikoa. Heavy Metala atsegin nuen, ez zortzikoak. Alfred Hitchcock, ez Alfredo Landa.

Nola edo hala, idazten hasi eta narrazioen lehiaketan mundura hurbildu

nintzen: hipoteka ez zen bere kasa ordainduko. Hainbat sariketatan parte hartu ondoren, Elkar argitaletxeko Xabier Mendigurenek deitu eta galdetu zidan ea banuen nobelaren bat tiraderan. Iruñeko Idazle Berrien lehiaketara bidalitako ipuin bat luzatu, II. Mundu Gerrako Alemaniara aldatu eta *Xake Mate* izena jarri nion. Lehen edizioa hilabete batzuetan agortu zen. Publizitaterik gabe, kazetari edo politikaririk ezagutu gabe. Irakurleen arteko ahoz-ahokoak funtzionatu zuen Internetik gabeko garai hartan.

Geroztik bederatzik nobela argitaratu ditut, Nafarroan giroturiko thrillerrak gehienak. Lehenbiziko urte haietan irakurleek bi ideia errepikatzen zizkidaten behin eta berriz. Lehena, bazela garaia norbaitek halako istorioak euskaraz idatz zitzan. Bigarrena, ez zitzaie erraza gertatzen halako argumentuak gure bazter foraletan irudikatzea. Serie-hiltzaileak Nafarroan? Foruzainak ikerlari? Horiek ez dira trafikoaz bakarrik arduratzen? Gauzak asko aldatu dira ordudanik. Orain badirudi “nafar thrillerra” modan jarri dela, eta kazetariak galdetzen didate ea beste baten nobeletan hartu dudan inspirazioa... hamaika ikustekoak gara.

Modu sistematikoan ihes egin diet fokuei. Ezezkoa ematen diet irakurleekin biltzeko eskaera adeitsuei. Ez dut artikulurik idazten, ez naiz tertuliano joaten irratietara. Ez naiz sare sozialetan sartzen, eta neukan webgune txikia aspaldi ezabatu nuen. Ez dut ikastarorik ez hitzaldirik ematen. Ez dut harremanik batere euskal literaturaren munduarekin.

Idatzi besterik ez dut egiten... lan egiteaz gainera.

176

Berehala ikasi nuen ezinezkoa zela literaturatik bizitzea. Euskaraz behintzat ez. Eta susmoa dut beste hizkuntza batzuetan ere ez dela batere erraza.

Garai batean batzuek ametsa errealtate bihurtzea lortu zuten, baina krisiak izugarri murriztu zituen ikastaroak, tailerrak, mahai inguruak eta antzeko mahukak, batzuek *idazle profesional* bezala agertzeko behar zutenak.

Hala ere, ezin naiz kexatu. Azken batean, idaztea abentura bat da, bidaiaria arriskutsua eta zalantza bete da. Sekula ez dakizu zer gertatuko den. Lortuko dut istorio hau modu duinean amaitzea? Gustatuko zaio jendeari? Neure argumentuak errepikatzen ari naiz? Genero hau agorturik dago?

Erran dezaket zorionekoa naizela. Nire liburuek nolabait lortu dute irakurleen arreta harrapatzea. Politika inondik ere, baina aldi berean ardura handia da jakitea idazten duzun esaldi bakoitza milaka jende irakurri, epaitu, gozatu, gaitzetsi, gorroto edo maite izanen dutela.

Ez dut lortu erdal literaturaren munduan sartzea, ordea. Saialdi pare bat egin nuen garai batean, eta murriztekin baten kontra egin nuen talka. Berehala ikasi nuen idatzi gabeko legea: euskararen munduan gertatzen dena bertan galditzen da. Seguruenik noizbait, norbaitek lortuko du madarikazioa apurtzea.

Nik bidaiatzen jarraituko dut.

